Lan-eskaintzen erregistroa 2022ko martxoan

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2022ko martxoan Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 1.405 izan da, otsailean baino 294 gehiago eta joan den urteko martxoan baino 853 gehiago.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2022ko martxoan 228 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 561 Gipuzkoan eta 616 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 43,8 Bizkaiko KAUetan erregistratu dira, % 39,9 Gipuzkoakoetan eta % 16,2 Arabakoetan.



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 22,6 hazi dira eskaintzak (42 eskaintza gehiago). Gipuzkoan 107 eskaintza gehiago izan dira (% 23,6ko hazkundea) eta Bizkaian 145 gehiago (% 30,8ko hazkundea).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban 131 eskaintza gehiago erregistratu dira, % 135,1eko hazkundea, Gipuzkoan % 173,7 hazi dira (356 eskaintza gehiago), eta azkenik, Bizkaian % 146,4 hazi dira (366 eskaintza gehiago).

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. % 19a zerbitzuetako profilerako erregistratu dira (267 eskaintza); eta, % 18,1a zientzietako teknikarien profilerako (254 eskaintza). Industria, laguntzako teknikari eta kualifikatu gabeko profileko lan eskaintzek, ere, pisu nabarmena dute; 234, 232 eta 193 eskaintza erregistratu dira, hurrenez- hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak, lehen sektorekoak eta zuzendariak izan dira, 8 eta 9 eskaintza hurrenez hurren.

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, eskaintza mota guztietan hazi dira eskaintzak, zuzendarien profilekoen kasuan izan ezik; hauen eskaintza 1 gutxiago jaso baita. Gehien hazi diren eskaintzak, balio absolutuetan, ez kualifikatuen profilekoak izan dira (74 eskaintza gehiago, % 62,2ko hazkundea); balio erlatiboetan, berriz, hazkunde haundiena operadoreen profilean izan da (% 67,2ko igoera, 41 eskaintza gehiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, profil guztietako eskaintzak hazi dira lehen sektorekoena salbu; profil honetako eskaintza 1 gutxiago jaso da. Gehien hazi direnak, balore absolutuetan, zerbitzuetako profilekoak izan dira (166 eskaintza gehiago, % 164,4ko hazkundea); balore erlatiboetan, aldiz, administrarien profileko eskaintzak izan dira gehien hazi direnak (%241,9ko hazkundea, 75 eskaintza gehiago).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen % 25,3k kontratu mugagabea eskaini dute; % 74k, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 0,7, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 356 izan dira, aurreko hilabetean baino 90 eskaintza gehiago (%33,8ko igoera). Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten 203 eskaintza gehiago erregistratu dira: 1040 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan hazkundea % 24,2koa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2022ko martxoan 9 izan dira, aurreko hilean baino 1 gehiago.



Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 269 gehiago izan dira (% 309,2ko hazkundea), aldi baterako kontratuen eskaintzak % 125,6 hazi dira; 579 eskaintza gehiago, eta, merkataritzako kontratuak, azkenik, 5 gehiago erregistratu dira.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2022ko martxoan erregistratutako lan-eskaintzen % 72,8k, 1023 eskaintzak, 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 14,3k (201 eskaintza) 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia eskatzen dute. Portzentaia txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek % 2,3ko pisua dute (33 eskaintza) eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenen pisua % 0,4koa da (6 eskaintza).



Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, murriztu den eskaintza bakarra 1 eta 3 urte arteko esperientzia eskatzen dutenena izan da; eskaintza bat gutxiago jaso da eta murrizketa %1,4koa izan da. Gehien hazi direnak, balio absolutuetan, 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (228 eskaintza gehiago, % 28,7ko hazkundea). Balio erlatiboetan, berriz, 6 eta 12 hil arteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira hazkunde nabarmenena izan dutenak (% 47,8ko hazkundea, 65 eskaintza gehiago).

Urte arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza mota guztiak hazi dira. Gehien hazi direnak, balore absolutuetan, 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira (644 eskaintza gehiago, % 169,9ko hazkundea); balore erlatiboetan, aldiz, 5 urte baino gehiagoko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (% 500eko hazkundea, 5 eskaintza gehiago).

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 7 hileko esperientzia eskatzen dute, aurreko hilean bezain beste.

• LANALDI MOTA

Analisiarekin jarraitu baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 12,1ek zehazten du datu hori (1.405 eskaintzetatik 170). 170 eskaintza horietatik, 144k lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 26ak, lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 47 gehiago izan dira urtarrilarekin alderatuz, hau da, % 48,5 hazi dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak, berriz, 12 gutxiago izan dira; murrizketa erlatiboa % 31,6koa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 81 gehiago izan dira (% 128,6ko hazkundea), eta lanaldi partzialeko kasuan, 11 gehiago izan dira (% 73,3ko hazkundea).

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 34 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 9 eskaintza gehiago eta aurreko urtean baino 27 gehiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 81,9k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 1.405 eskaintzetatik 265ek soilik zehaztu dute.



265 eskaintza horietatik, 105ek LHko prestakuntza maila eskatu dute; ikasketa maila hau duten eskaintzak izan dira ugarienak. Ondoren, unibertsitateko ikasketa mailak eskatzen dituztenak daude, 96 eskaintza erregistratu dira. Azkenik, oinarrizko eta batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude (44 eta 10 eskaintza, hurrenez hurren).

Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, gehien hazi diren eskaintzak, bai balio absolutu zein erlatiboetan, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (23 eskaintza gehiago, % 31,5eko hazkundea). Gehien murriztu direnak, aldiz, derrigorrezko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (% 10,2ko murrizketa, 5 eskaintza gutxiago).

2021eko martxoarekin alderatuz, eskaintza mota guztiak hazi dira. Gehien hasi direnak, balore absolutu eta erlatiboetan, LHko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira 72 eskaintza gehiago jasota (% 218,2ko hazkundea).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen dena manufaktura industria izan da; honen pisua eskaintza guztien % 14,7koa izan da (207 eskaintza). Nabarmentzeko beste jarduera bat ostalaritza da, eskaintzen % 11,7ko pisu-arekin (165 eskaintza).

Aurreko hilari erreparatuz, balio absolutuetan, gehien hazi diren eskaintzak, ostalaritzakoak izan dira (80 eskaintza gehiago, % 91,1eko hazkundea); balio erlatiboetan, hazkunde nabarmena informazio eta komunikazioko eskaintzek izan dute (% 122,2ko igoera, 22 eskaintza gehiago). Gehien murriztu diren eskaintzak, aldiz, merkataritzakoak izan dira; 19 eskaintza gutxiago eta %10,9ko beherakada; balio erlatiboetan, berriz, beherakada haundiena etxeetako eskaintzek jasan dute; % 33,3koa, hain zuzen ere (5 eskaintza gutxiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, iharduera guztietako eskaintzak hazi dira. Bilakaera hoberena izan duten eskaintzak, balore absolutu eta erlatiboetan, ostalaritzakoak izan dira (145 eskaintza gehiago, %725eko hazkundea).